

Gobernari edo gobernatu

Peru Iparragirre

Idazle gartzita literatura sorkuntzako beka irabazi zuen Miren Amurizaren *Paperezko txoriak* nobela proiektuak. *Basa* (Elkar, 2019) nobela bilakatu da proiektu hori, andre basa baten inguruko eleberria. *Basa* hitzaren adieriek zabaltzen dute liburua. Definiziook nobelaren pertsonaia nagusiari egoki dakizkioke. Sabina Gojenola basa da, edo basa ageri da, behintzat. Basa da, era berean, eleberria bera, iruditu zait. Sabinaren pertsonaia betetzen du istorioa, eta nabardurei gaina hartzen die basatasunak. Nabardurak ez dira falta, ordea, eta horrek ematen dio osotasuna liburuari. Sabina basa da, baina beste zerbaitekin alderatuta, tentsioan betiere.

Tentsioarekin jokatzeko du Amurizak, pertsonaien arteko eta

pertsonaien baitako tentsioekin. Tentsioak handitzen doaz kontakizunak aurrera egin ahala, bata besteari gehituz, eta argigune gutxi geratzen zaizkio irakurleari; horren emaitza da nobela ezagurrizten duen atmosfera astuna. Astuna, pertsonaien sufrimendua transmititzeko gai dena, kanpotik begiratuta eta aipatu tentsioak eta pertsonaien arteko botere ha-



'Basa'


Idazlea: Miren Amuriza.
Argitaletxea: Elkar.

rreman konplexuak kontuan hartu gabe ulertuta alferrekoa dirudiena, dramatikoia. Orri gutxitan lortzen da Amurizak familia oso baten, bizimodu edo irauteko modu baten kontaketa egitea, pertsonaia nagusiei eta haien zirkunstantzietatik nahikoa testuinguru eta garapen emanez. Erabat egiazkoak eta ia errealek izan daitezkeen egoerak deskribatzen eta baztertuta egonagatik gaur egun dirauten auziak jartzen ditu mahai gainean. Kontrazaleko testuak dio mundu ikuskera baten akabera kontatzen duela. Gehituko nuke ustezko akabera horren arrakalak erakusten dituela.

Sintesi lana nabari da, bilbearen lehortasunari ere gehitzen zaiona eta mesede egiten diona. Esan gabe uzten denak esaten denak bezainbeste pisia du, eta iradokitzen denak geruza bat gehitzen dio atmosfera aztoragarriari. Halaber, idazkera aberatsak eta estilo zehatzak ederki ematen dio irtenbidea lastasun horri, irakurlea nobelaren atmosferan ozta-ozta, nahikoa, gidatuz, bidea erakutsiz eskuaz paisaia bat erakusten den bezala: interpretazio lana irakurleari utziz. Ahoz-

kotasunaren garrantzia ere nabaria da: auzokoaren kontaketa, hari nagusiarekin tartekatuz hura elikatzen duena, Sabinak bere kautarako esaten dituenak, ia beti kontrapuntu gisa, Henryren alarauak eta pertsonaien arteko elkarriketa biziak. Beste hainbeste garrantzia dauka, ordea, isiltasunak: erantzun ezak, erdizka esaten denak.

Sabinak ez du amore ematen bere bizitzari dagokionez, bere autonomia, gero eta mugatuagoa, baliatzen du ustez bera gobernatu nahi dutenei aurre egiteko. Gobernari edo gobernatu, lehenengoan taldean hobe dagoela bai baitaki berak. Eta, hala ere, pertsonaia anbigua irudi lezake, ulertezina, gobernari eta gobernatuaren arteko tentsio horren prisma askatuta ikusten baldin bada, behintzat. Eta horrela dakusate Sabina berak aurkitzatz dauzkan pertsonaia ia guztiak. Baseri giroaren erromantizismoari ihes egiten dio nobelak, eta Sabina ez da alegiazko pertsonaia bat: esan bezala, egiazkoak dira egoerak, egiazkoak pertsonaia, errealek, ia. Ez da oso urrutira joan behar beraiekin topo egiteko.



'Gernikako Arbola'

Idazlea: George Steer.
Itzultzailea: Koro Navarro.
Argitaletxea: Eusko Jaurfiritza.

George Steer Gernikan (Bizkaia) zegoen 1937ko apirilaren 26an, Francoren aliatuek hiria bombardatu zutenean. Han ikusitakoa liburuan jaso zuen, eta orain euskaraz eman dute. 36ko gerrari buruzko lan garrantzitsuenetakoa bat da *The Times* egunkariako kazetariaren hau.



'Tintinen abenturak. Castafioreren bitxiak'

Egilea: Herge.
Argitaletxeak: Zephyrum eta Trilita.

Tintinen abenturena hizkuntza askotara itzulitako bilduma bat da. Euskaraz eman berri duten hau 1963an argitaratu zuten, eta Bianca Castafiore *Milango Urretxindorra* Moulinartera heldu hasten da. Maleta, bitxi, paparazzi eta kazetariak lagun ailegatuko da kantaria.



'Geldi 2011-2017. Goitibehera jaitsierak'

Egileak: Usue Arrieta, Vicente Vazquez.
Argitaletxea: zko.

Euskal Herriko goitibeherak gai hartuta, liburua gailu artistiko gisa diseinatuta, etnografiak eta argazkilaritza baliatu dira egileak. Jeremy Macclancy, Nader Koochaki eta Diego Carbajoren testuak, 89 goitibehera fitxa eta argazki albuma biltzen ditu.

Botoi begi horiek

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu honetan oinarrituta, izen bereko film bat estreinatu zuten duela hamar urte justu, arrakasta handiarekin. Berehala izendatu zuten ezinbesteko animazio zaleen zerrendetan, gidoiagatik ez ezik, irudi lan bikaina osatu zutelako ere. Egia da: betiko iltzatuta geratzen zaizkizu bertako fotogramak, botoi begien begirada huts hura.

Orain, liburua euskaratu digute. Albiste bikaina, baina... Bartzuetan zaila da zinemaren iruditeriatik ihes egitea; zaila ez baldintzatzea irakurketa, filmaren ostean datorrenean.

Bada, egin ezazue. Ez zarete damutuko.

Irakurraldian zehar nindoala, ez dit kalterik egin filmaren irudiak gogora etortzeko —«behin-goagatik», pentsatu dut—; alderantziz, iruditu zait elkar elika-

tzen dutela bi formatuek. Pelikula irakurraldia aberastu didala iruditu zait.

Oharrak: (I) Adin muga baino garrantzitsuagoa da proposatzen den estetikaren garrantzitasuna jasateko ahalmena, beldurrezko (terrore arina?) istorio honekin gozatzeko; (eta II) Irakurri dena, egilearen hitzaurretik hasita, amaierako bonus-elkarriketa barne.

Ez zarete damutuko.



'Coraline'

Idazlea: Neil Gaiman.
Ilustratzailea: Dave McKean.
Itzultzailea: Julen Gabiria.
Argitaletxea: Elkar.

Txori-pauso bat

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Halaxe da: gu, kultura txikietan bizi gare-nok, euskarri eskaseko kultura dugunok, aurrerapausoak zenbatzen ari-tzen gara, banaka baitatoz. Borrokatu beharra zoriz egokitu zaigu agian, agian patuz, ez dakit, baina badakit txori-pausoa poz iturri gisa bizitzeko gure esku dagoela.

Demagun, sortzaile eta iker-tzaile nekazekin batek tradizioko ipuin bat hartu eta hausnar-leku bilakatzen duenean. Orduan, poztu gaitzeko, bai horixe.

Ez da atzo goizean hasitako lanaren fruitua. Atxagak 1985ean emandako hitzaldi batean abiatu zen dena, Arrieta Malaxetxeberriak berak aitortzen duenez *Klasisikoak gaur*. *Mari Xor* liburua parraloan. Izan ere, bi liburua argitaratu berri baititu, albuma eta ikerketa. Biak batera.

Ipuina ezagutzen ez duzuenoi, kontaktuko dizuet *Mari Xor* in-izazio ipuin bat dela, *Mari Errauskine*-ren euskal bertsoia, Joxe Arratibelen *Kontu Zaarrak* bilduman (La Gran Enciclopedia Vasca, 1980) lehen aldiz argitaratua.

Arrieta-Alonso tandemak album formatua eman diote, hai-zeberritzeko asmoarekin.

Lanordu askoren emaitza dire-la nabari da. Albuma eta ikerketa. Biak.



'Mari Xor'

Idazlea: Yolanda Arrieta
Malaxetxeberria.
Ilustratzailea: Aitziber Alonso Pikabea.
Argitaletxea: Denonartean.